

Eskaintza zabala, Jabekuntza Eskolan

Zabalik da Andoain eta Urnietan izena emateko epea / 8

BDZ taldearen aurkezpena

Dei egin dute Israeli nazioarteko zuzenbidea errespetatu dezan presionatzeko / 2

"Bezeroaren Astea"
eta "Outlet kalean"
ekimenak Andoainen,
Salkin elkartearen
eskutik / 14

Asteburu osoko jaiez
gozatu zuten
Urnietako Etxeberrri
plazan, aurreko
asteburuan / 8-9

Tximeleta
Poihal-denda

Lehen urtemuga!
Eskerrik asko denei

ORDUTEGI BERRIA:

- ASTELEHENA, OSTEGUNA ETA OSTIRALA:
09:30-13:00. ARRAZALDEZ ITXITA
- ASTEARTEA ETA ASTEAZKENA:
09:30-13:00 / 17:00-20:00.
- LARUNBATIAK: 09:30-13:00.

KALE NAGUSIA, 45. ANDOAIN - 697 479 729 - 943 095 241

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Astearre arratsaldean egin zuten aurkezpen-ekitaldia. AIURRI

BDZ Andoain taldearen aurkezpena

Egitasmoak Hegoafrikako apartheidaren aurkako mugimendua du oinarri, eta Israeli nazioarteko zuzenbidea errespetatu dezan presionatzeko deia luzatzen dio gizarteari. Andoainen ekimenarekin bat egiteko gonbita luzatu diete herrikideei

Xabier Lasa ANDOAIN

Palestinako askatasunaren, justiziaren eta berdintasunaren aldeko mugimendua da BDZ (Boikota, Desinbertsioa eta Zigorak), eta Andoainen azken aldian osatu den taldea jendarean aurkeztu zuten, asteartean.

Andoingo taldeko kideek azaldu zuten, BDZk Hegoafrikako apartheidaren aurkako mugimendua du oinarri, eta Israeli nazioarteko zuzenbidea errespetatu dezan presionatzeko deia luzatzen dio gizarteari.

Hiru ekinbide nagusi

Zehazki, hiru ekinbide bultzatzen ditu BDZ mugimenduak, bere siglek adierazten duten moduan. Batetik, boikota jorratzen du, eta horretarako, "Israeli eta Palestinako giza eskubideen urraketan parte hartzen duten Israelgo eta nazioarteko enpresei, eta baita Israelgo kirol, kultur eta ikasketa erakundeei ere babesak kentzea" bultzatzen du.

Bigarrenik, desinbertsioen aldeko kanpainen eskutik, bankuei, tokiko kontseiluei, elizei, pentsio-funtsei eta unibertsitatei eskatzen diete "Israelgo enpre-

sa guztietako eta eskubide palestinarren urraketan inplikaturako nazioarteko enpresetako inbertsioak kentzea".

Hirugarrenik, zigorraren aldeko kanpaineekin, gobernuei presioa egiten diete, "Israeli erantzukizunak eskatzeko legezko betebeharrak bete dezaten, merkataritza militarra, merkataritza libreko akordioak eta Israel nazioarteko foroetatik kanporatu, hala nola Nazio Batuetatik eta FIFAtik".

BDZ Andoain taldeko kideek, azken hilabeteetan Andoainen egin dituzten kanpainen berri eman zuten. Besteak beste, herritarri informazioa helarazi die, eta CAF eta SAPA enpresak eta janari saltokietan salgai dauden zenbait produktu hartu dituzte jomugan. Aldi berean, Palestinaren alde herrian sortu diren hainbat ekimenetan parte hartu dute.

Mugimenduekin modu batera edo bestera bat egiteko gonbita luzatu zieten andoaindarrei. Jakinarazi zuten, oraingoz, honako hau da Andoingo taldearen informazio-kanala (Instagram): BDZ.andoain.



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.
Maketatzailea: Maddi Truxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



"Ibaitik itsasora" zeharkaldia

Palestinaren genozidioaren salaketa aktiboa zabaltzeko "Ibaitik Itsasora" izeneko martxa abiatu zen Tuteratik, joan zen irailaren 11n. Eta, irailaren 20an, Hendaiara iritsiko da giza-martxa, Nafarroa mutur batetik bestera zeharkatu ostean. Bertan da Eli Errondosoro eta Aiurri.eus webgunean kontakizuna egiten ari da.



IBAITIK ITSASORA EKIMENA

Sarbide digitala

Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako NIK Patrika Digitalarekin Beterri-Buruntzako kiroldegietara sartzeko aukera izango dute aurrerantzean erabiltzaileek: txartel digitala mugikorrean deskargatu eta konfiguratu ondoren, interneteko konexiorik behar izan gabe, kiroldegiko sarreran identifikatzeko aukera izango dute herritarrek.



GEURIA

Euskara-eskolak

Eskaintza berriarekin ekin nahi dio ikasturteari Urnietako AEK-k: herriko merkatarientzako euskara-eskolak jarri nahi ditu abian urritik aurrera. Hala, ekainera bitarte, asteen bi aldiz, eguerdian, hizkuntzan trebatzeko aukera izango dute herriko merkatariek. Informazio gehiago:

- 662 338 747
- urnieta@ae.eus.



AIURRI



AIURRI

Salkin, marka bateratua

Azken urteotan Salkin merkatarien elkarteak marka gizarteratzeko lan handia egiten ari dira. Berriki, Andoaingo elkarteko kide diren merkatalguneetan lanpasa berriak ikus daitezke. Irailean ekimen betean dira dendariak, "Outlet kalean" eta "Bezeroaren Astea" kanpainak martxan jarrita.

Egunean Behin, denboraldi berria hastear da

Azken urteotan on line jokoen artean ezagunena eta erabiliena

da Egunean Behin. Datorren astelehenean hasiko da 19. denboraldia. Gakoa ohikoa da: Hamar galdera ahalik eta azkarren eta ondoen erantzutea. Aiurri taldea martxan da!



19. denboraldia irailaren 22an abiatuko da

- "Aiurri" taldean emozioa ez da faltako. Bat egin gurekin, bat egin ehunka jokalarirekin!



KOMUNITATEA

SALESIARRAK URNIETA

Poems Proiektua



SALESTARRAK

Beste urte batez, Salestarrak Magale Urnietak POEMS ("Promoting Emotional Intelligence at School") europar proiektuan parte hartu du. Ikasleen hezkuntza integralarekin dugun konpromisoaren esparruan, gure ikastetxeak POEMS proiektu europarra lantzen jarraitzen du, eskola-ingurunean adimen emozionala sustatzea xede duen ekimena. Proiektu honen helburu nagusia irakasleei eta ikasleei beren emozioak ezagutu, adierazi eta kudeatzeko tresna praktikoak eskaintzea da, eskola-giro positiboagoa, inklusiboagoa eta osasungarriagoa ahalbidetuz.

Tresna horiek jada aplikatzen dira DBHko ikasleen artean Aurten, topaketa Magale Salesianos Urnietan ospatu da, Italia, Turkia, Errumania eta Letonia bezalako Europako ikastetxeetako beste irakasle batzuen partaidetzarekin. Elkarren segidako bi egunetan, irailak 4an eta 5ean, gure ikasleei ikasteko aukera berriak eskaintzen jarraitzeko lan egin dute, gaitasun emozionalak eta sozialak indartzeko.

Gure ustez, adimen emozionala hezte funtsezkoa da ongizate pertsonalerako eta arrakasta akademikorako. POEMSi esker, gure ikastetxeak beste urrats bat eman du enpatia, erresilientzia eta bizikidetzatza sustatzen dituen hezkuntza-komunitatea eraikitzeko.

www.aiurri.eus

AIURRI
 BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA


- Iritzia
- Postontzia

Pentsiodunen deialdia

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako pentsioak osatzeko ekinaldi legegilearen kontrako txostena egin du, berriki, Eusko Jaurkitzak. Horrexegatik, haserre agertu dira pentsiodunen elkarteko kideak. Bat egin dute Gipuzkoako Pentsiodunekin: larunbat honetan, Donostiako Boulebarretik manifestazioa abiatuko da 12:00tan



AIURRI

Gazaren aldeko erredua

Andoaingo erretore Andoni Ledesmak, Santa Krutz elizan igandero meza eman ostean, Gazan bakea eskatzeko otoitza egin zuen hainbat herrikiderek batera. Ledesmak iragarri zuenez, herriko fededunen komunitateak elkarretaratzea errepikatuko du datorren igandean, San Martin parrokian, eguerdiko 12:00etan hasita.



AIURRI

Motor ikusgarriak

Erromesak oinez eta bizikletan ikustera ohituta daude andoaindarrak, bereziki, uda partean. Aurreko ostiralean, ordea, udalerrira hurbildu ziren bisitarien garraioak arreta piztu zuen bizilagunen artean: tamaina handiko motorrak ziren, zinez ikusgarriak!

Kalean gora eta behera, oinezkoek ezustekoa hartu zuten Makaldegian, tamaina handiko traste horiek aurrez aurre topatzean. Bidaiaariak kaskoa jantzi eta Kaleberrian barrena Sorabillarrantz abiatu zuten. Ordurako, gidariak jakitun ziren herrikideen artean piztu zutena.



AIURRI



Guadalupeko Amaren omenez lore-eskaintza egin zuten, larunbateko ekitaldian. AIURRI

Extremadura eguna

Extremadurako ereserkia abestu, hildako bazkideen aldeko minutuko isilunea egin eta Guadalupeko Amaren aldeko lore-eskaintza egin zuten aurreko asteburuan, Miajon de Castuos elkartearen. Hamaiketakoarekin eman zioten amaiera ospakizunari

Erredakzioa ANDOAIN
Irailaren 8an egun handia da Extremadurako biztanleentzat. Urrunetik bada ere, gogoan dute sorterrria Andoainen.

Miajon de Castuos elkartearen joan zen irailaren 13an egin zuten ospakizuna, larunbatarekin. Ez dituzte, beraz, sustraiak ahaztu nahi.

Zuzendaritzako kideek antolatatu zuten ospakizuna eta bertara hurbildu ziren, urtero bezala, bazkideak eta Andoaingo udal ordezkari politikoak.

Hamaiketakoa



Susana Garcia eta Armando Fernandez, hamaiketakoarekin. AIURRI

Sustraiak "Extremadura, arima. Extremadura, lurra. Extremadura biziz betea. Gure ahotsak altxatzen dira, gure zeruak banderez betetzen dira, bandera berde, zuri eta beltzez", dio ereserkiak.



Matilla, Alaminos eta Seara. AIURRI

Zuzendaritza-taldeko kideak Dani Alaminos, Cristina Matilla eta Ricardo Seara aritu ziren sukaldean, lanean. Tabernan, berriz, Armando Fernandez, Joxe Manuel Rainha eta Susana Garcia.



Sara Jimenez aktorea. CASTUA

"Castua" antzezlanak, Basteron

Extremadurako historia eta kultura uztartuko ditu Sara Jimenez aktoreak, datorren irailaren 26an

Erredakzioa ANDOAIN
XX. mendeko Extremadura historia eta tradizioa aberatsetan barrena bidaiatzera gonbidatzen duen Castua antzezlanak taula-

ratuko du Almor Movimiento antzez taldeak, irailaren 26an, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Sarrera doan izango da, baina gonbidapena hartu behar da.

Sara Jimenez aktoreak, eszenan bakarrik eta muntaia eszeniko minimalista batekin, XX. mendeko Extremadura hartzen du jomugan. Herrialde horren oroimen kolektiboa berreskuratu nahi du, emoziozko interpretazio konprometitu eta sinboliko baten bidez. Misio pedagogikoak, nekazarien matxinadak, 1936ko Gerra Zibila eta diaspora zeharkatzen ditu. Bertako herritarren historia kontatzen du, herritarren erretratua egiten du, eta hausnarketa ere sustatzen du bertakoek etorkizunean zer nolako Extremadura eraiki nahi dutenaren gainean.

Azken batean, antzezlanak, Extremadurako historiaren funtsezko pasarteak birsortzen ditu, gutxitan kontatzen dutenen ikuspegitik: emakumeak, ahaztuak eta erresistentek.

Herriaren samina, borroka, alaitasuna eta nortasuna
Sara Jimenezen hitzetan, antzezlanak "herriaren samina, borroka, alaitasuna eta nortasuna ehuntzen ditu. Ikuspegia emozionala eta sentsoriala da, eta gogoeta sozial eta kultural handia du".
Antzerki emanaldia Badajozeko Diputazioak, Andoaingo Udalak eta Hogar Extremeño elkarteak sustatu dute, elkarlanean. Erroak lurralde haietan dituen herrikidearentzat proposamen interesgarria da.



Anuk eta Elene abeslari gazteak, kantuan. AIURRI

Ikasturte hasiera, ospakizun bilakatuta

Ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak, arte garaikide feminista, mendi orientazioa, DJ ikastaroa... udazkeneko Jabekuntza Eskolan hamaika eskaintza dago aukeran. Izena emateko epea zabalik dago


Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Jabekuntza Eskolaren eskaintza zabala da eta landutako esparrua, askotarikoa: batukada feminista, DJ ikastaroa, ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak, arte

garaikide feminista III, mendi orientazioa, oinarritzko brikolaje lantegia, amatasunak feminismitik, biodantza, kosmetika naturala, zoru pelbikoa konkistatuz, menopausiatik harago doan klimateria, eta jatorri

anitzetako emakumeen elkarlagune multikulturala.

Egunotan, etxetz-etxe aritu dira banatzen ikastaroen gaineko azalpenak ematen dituen liburuxka. Doakoak dira ikastaro guztiak.



UDALA

Liburuxka, informazio osoarekin Informazioa eskatu edo izena emateko bide ugari zabaldu dituzte:

- Webgunea: jabekuntza.andoain.eus.
- Udaletxea: Andoaingo Udaleko Berdintasuna saila.
- Telefonoa: 943 300 830 (luzapeña 380-385).
- E-posta: berdintasuna@andoain.eus.
- Arreta-zerbitzua: Andoaingo Udaleko Ataria zerbitzua.

Ahalduntze-prozesuen bidez, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzen du helburu Jabekuntza Eskolak. Ahalduntzea aipatuta zer ulertzen den azaltzen da liburuxkan: "Emakumeok beren izaeraren kontzientzia hartzea, autoestimua lantzea, guren gaitasun propioak ezagutzea era emakumeoi dagokigun espazioa berreskuratzea".

Urnietako Jabekuntza Eskolaren eskaintza

Ikastaro-sorta antolatu du Udalak eta interesatuek irailaren 19ra bitarte eman dezakete izena

Erredakzioa URNIETA

Emakumeen Jabekuntza Eskolaren ikasturte osoko programa aurkeztu du, berriki, Urnietako Udalak: hala, bai udazkenean, bai udaberrian, hamahiru jardueratan parte hartzeko aukera izango dute herriko emakumeek.

Parte hartu nahi dutenek irailaren 19ra bitartean eman behar dute izena Bertan herritarren arretarako bulegoan, asteleheneetik ostiralera 7:30-14:30 bitartean edo online Urnietako Udalen webgunean. Bestalde, zaintza-zerbitzua ere bermatuko du Urnietako Udalak: "Beharra dutenek ekintza bakoitza hasi baino 15 egun aurretik eskatu beharko dute".

Makina bat jarduera

Adin-tarte zabala kontuan hartuta ondu du Urnietako Udalak aurtengo ikasturterako eskaintza: tailer praktikoetatik hasi eta oinari teorikoagoa dutenentara bitarte, askotariko edukiak lantzeko hitzorduak izango dira datozen hilabateotan: irakurketa, sormena, brikolajea, umorea, kirol-jarduerak, nutrizioa, haremanak, menopausia, buruosasuna... Ikastaro bakoitzak bere iraupena izango du eta prezioa ere aldakorra da batetik bestera. Era berean, herrian bertan erroldatuta daudenek merkeagoa izango dute izenemateko matrikula.

Ikastaro guztien informazioa (landuko diren gaien laburpena, ordutegiak, prezioak...) eskegita dago Aiurri.eus webgunean.

ZAINTZA-ZERBITZUA BERMATUKO DA IKASTAROETAN, ALDEZ AURRETIK ABISUA EMANDA

Aurkezpen-ekitaldia, Urigain etxean



Haizea Barandiaran eta Ianire Huizi. AIURRI

Aurkezpena Haizea Barandiaran Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun sailerako zinegotzi ahaldua eta Ianire Huizi berdintasun teknikaria izan ziren ikasturtea aurkeztu zutenak.



Bertaratu zirenek udazkeneko eskaintza jaso zuten. AIURRI

Eskaintza Aurkezpena Udazkeneko Jabekuntza Eskolaren eskaintza hamabi ikastaro edo egitasmoz osaturik dago. Udalak eskuorrian jaso du eskaintza osoa eta zabaldu aurretik Urigainen aurkeztu zuen.

"Urnietako jaiek gune segurua izan behar dute"

Talka sortu da Txosna Batzordearen eta Urnietako Udaleko arduradunen artean eta, jaiak iristeko hamar egunen faltan, lasaitasunerako mezua zabaldu du jeltzaleek eta sozialistek osatzen duten Gobernu-taldeak

Erredakzioa URNIETA
Urnietako Udaleko Gobernu-taldeak, Sanmielen aurretik, sei puntuko adierazpena argitara eman du. Nahiz eta txosnarik ez egon, jaiak "errespetuz" igarotzeko eskaria luzatu dute. Honatx, hedabideetara helarazitako adierazpena:

Gobernu-taldearen adierazpena
"Txosnarik ez egoteak herrian sortu duen kezka eta diskrepantziaren aurrean, Udal Gobernu-taldeak mezu bat bidali nahi du, jaiak errespetuz eta urnietar guztien elkarbizitzarekin gara daitezen.

Horregatik guztiagatik, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Urnietako jaiek elkartzeko, bizikidetzarako, ospakizunerako eta askatasunean gozatzeko gune segurua izan behar dute.
2. Aurreko urteetan egin den modura, Udalak beharrezko giza-baliabideak, logistikoak eta ekonomikoak jarri ditu txosnak egon daitezen.
3. Udal Gobernu-taldeak errespetatzen du Txosna Batzordeak 2025eko jaiak dagokienez hartutako erabakia, hau da, txosnak ez jartzearena.
4. Gobernu-taldeak txosnen ordenantza eguneratzeko lan



Jaien hasiera, artxiboko irudian. AIURRI

egiteko konpromisoa hartu du, eta hala berretsi du Jai Batzordearen uztaleko eta iraileko bileretan. Prozesu hau uztalean hasi zen, Txosna Batzordearekin eta Jai Batzordearekin batera eramango da aurrera, eta Urnietako elkarte-sare osoaren eskaerei erantzungo dien ordenantza bat osatzea du helburu.

5. Urnietar herritarrek eta elkarteek jaiak modu askean ospatzeko duten askatasuna

aldarrikatzen du Udal Gobernu-taldeak, jai horietan parte hartzeari buruzko erabaki indibidualetan edo kolektiboetan inork eragotzi gabe. Ez da onartuko jai giroa edota jaien ohiko garapena baldintzatu nahi duen inolako presio modurik.

6. Gobernu-taldeak urnietarrak gonbidatu nahi ditu jaiak aniztasunetik eta pluraltasunetik ospatu ditzaten, guztien arteko bizikidetzat bultzatuz".



ZAZPI DOKUMENTALA

Mendi Tour, Udalaren eskutik

"Red rock revolution", "Peligro. No asomarse" eta "Zazpi" ikus-entzunezkoak ikusteko aukera izango da hilaren 24an Sarobe Arte Eszenikoen gunean. Arratsaldeko 19:00tan hasiko da eta sarrera doakoa da. Mendi Film jaialdiko lan onenak herriz herri ikusteko aukera izaten da, askoren artean, Urnietan.



AIURRI

San Migel eguneko bertso-saioa

Udalak antolatuta, kantuan ariko dira Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso bertsolariak. Lehen saioa udaletxeko areto nagusian egingo dute, 10:30ean. Bigarrena, berriz, mezetan, eguerdiko 13:00tan hasita. San Migel eguna Urnietako egun handia da eta egitarauan bertsoa osagaietakoa da.

Urnietako
udala

Txosna Batzordea

Iraila hasierako herri-bileran adierazi zutenez, Txosna Batzordeko kideak ez dira geldirik egongo Sanmieletan. Esaterako, txosnen aldeko kamisetak egingo dituztela iragarri dute. Kirol, gazteria, politika eta gizarte mailako mugimenduak dira Urnietako Txosna Batzordeko partaideak.



AIURRI



Lan eskerga egiten du Etxeberri auzo elkateak, asteburu batez, plaza ospakizunez bete dadin. AIURRI

Jaiez gozatu dute auzotarrek

Hiru eguneko ospakizun-sorta izan da Etxeberri plazan, bertako auzo elkarteak antolatuta, goizean goizetik hasita gaueko ordu txikietara bitarte, aspertzeko tarterik ez da izan auzoan

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Amaitu dira Etxeberri auzuneko zazpigarren festak. Ostirale-tik hasi eta igandera bitarte, zer jana, zer edana eta zer gozatua izan dute herritarrek Etxeberri plazaren bueltan, eguraldia lagun, makina bat hitzordu izan baitira auzoan, adin guztiei begira zuzenduta.

Su-ziriak airean lehertzearekin batera iritsi zen Etxeberritxo, jaien hasieraren iragarle. Hala, asteburu honetan elkartera batu berri den Noemi Iborra bizilaguna izan da aurtengo pregoilaria. Egitarauan urtero hutsik egin ezin duten hitzorduak nabarmentzearekin batera, berrikuntzetan ipini zuen indarra Iborrak: “Egindako lanarekin, hiru egun eder eta polit pasa nahi ditugu zuekin”. Eraso se-

xistarik gabeko jai-giroa aldarrikatu zuen urnietarrak, eta besoak zabalik jaso zituen auzunera gerturatutako bizilagunak: “Zuek gabe, festak ez dira festak”. Pregoia biribiltzeko, besteak beste, Etxeberri Auzo Elkarteko kideekiko eskertza zabala erakutsi zuen: “Etxeberriko jaiak gure bizitzaren parte dira dagoeneko eta ondo pasatzeko aukera paregabean ematen diguzue. Eskerrik asko!”.

Ekintzez betetako hiru egun

Haurren eta nerabeen denborapasa arrakastatsua bihurtu zen ostiral arratsaldeko zezen mekanikoa, baita iluntzeko erromeria ere. Urnietako bi kidek jotzen dute Komerik taldean. Horrela, jendetza hurbildu zen gaueko eskaintzara, euskal doi-

nu ezagunekin gozatzera. Hala, Txanbolin txistulari-bandak ireki zuen larunbateko egitaraua. Korrikalarien txanda izan zen goizekoa, plazari bi itzuli ematen dizkion lasterketa egin baitzuten, patinete elektriko batera igota, oilaskoz mozorroturiko antolatzaileari segika. Harrapatu ez bazuen ere, Negu Lizeaga Jauregi herrikidea izan zen korrikalari azkarrena. Bien bitartean, jolaserako tartea zein aurpegia margotzeko aukera izan zuten bizilagunek, urtero Super H elkarteak antolatu ohi duen txokoan.

Euskal Parrillarekin tripa bapo beteta, bingoan jolastu ondoren, apar-festa eta kirol-jolasak izan zituzten, Flowing eta Mike DJ-ek girotuta. Jarraian, urdaiazpiko-ebakitzailak hartu zuten



Iborra izan da aurtengo pregoilaria. AIURRI

jai-giroaren lekukoa, herri-afariari bide emateko. Egunari amaiera emateko, berriro ere Flowing eta Mike DJ-ak izan ziren protagonista.

Asteburua biribiltzeko, txirrista irristakorra ipini zuten igande eguerdian auzo elkarte-kideek eta arratsaldean Zirkoko Txosko taldearen ikuskizunak itxi zituen aurtengo Etxeberriko festak. Hiru egunetan, ekintzez jositako egitarauarekin ospakizun-giroan murgiltzeko amu ederra bota die urnietarrei Etxeberri Auzo Elkarteak.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Urnietako Etxeberri auzoko jaiak Aiurri.eus webgunean

Argazki-bildumak, Jai Batzordeari elkarrizketa...

ATAL BEREZIA

www.aiurri.eus



Askotariko jolasez goatzeko aukera izan zuten larunbatean. AIURRI



Super H-k urtero jarri ohi du postua. AIURRI



Auzo elkarteko kideetako batzuk. AIURRI



Euskal Parrillaren eskutik, auzo-bazkaria. AIURRI



Zezen-mekanikoa, ostiral arratsaldean. AIURRI



Larunbat goizeko lasterketan parte hartu zuten korrikalarien talde-argazkia. AIURRI



Etxeberritxo da jaien ikurra. AIURRI



Etxekoak nagusitu ziren jubenil mailako txapelketan. LEIZARAN

Denboraldiaurreko eskubaloitxapelketa

Allurralde kiroldegian eta Arrate pilotalekuan denboraldiaurreko XIV. eskubaloitxapelketa antolatu zuen Leizaran eskubaloitaldeak. Denera, 16 talde eta 250 jokalaria baino gehiago elkartu ziren

Erredakzioa ANDOAIN

Infantil, kadete eta jubenil mailako txapelketak jokatu ostean, senior mailakoen arteko partida jokatu zen Allurralden. Klubak, ohar bidez, giroaren berri eman zuen: "Jardunaldia giro ezin hobean eta normaltasun osoz igaro da. Parte hartu duten klubaren artean Ordizia, Burlata, Egues eta Saieko egon dira. Lehiakortasun eta konpromiso handia erakutsi dute, denek ere. Txapelketa honekin, klubak 2025/26 denboraldiari ekin dio, helburu argi batekin: Andoainen eskubaloia sustatzen jarraitzea".

Finalak

Etxekoak nagusitu ziren jubenil mailako finalean.

Infantil maila:

Egues 13-21 Saieko.

Kadete maila:

Burlata 25-18 Saieko.

Jubenil maila:

Leizaran Javier Zeramikak 29-26 Burlata.

Sari-banaketaren ostean, Leizaran eta Burlatako senior-taldeek lagunarteko norgehiagoka jokatu zuten, jardunaldiari amaiera emateko. Garaipena nafarrentzat izan zen (28-33).

Antolatzaileen laguntzaileen lana eskertu dute: "Txapelketa posible egin duten boluntarioen lana nabarmendu nahi izan dugu: arbitroak, koordinazioan eta gainerako zeregin logistikoetan aritu direnak eta baita instalakuntzak utzi dizkiguten Zumea-tarra, Peña Santa Krutz eta

Ontza elkarteak ere". Ikusleei ere eskertza adierazi diete ohar berean. Klubaren martxan, bestalde, babesleak ezinbestekoak dira: Andoingo Udala, Javier Zeramikak, Otordu, Aspilla, Lixone, Ernio Inmobiliaria, Camacho Construcción, Oianume, Urrats, Kaiku eta Pasquier.

LEIZARANEN ASMOA "ANDOAINEN ESKUBALOIA SUSTATZEN JARRAITZEA" DA

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia

250 lagunetik gora elkartu ziren



Burlatako kadete mailako taldea. LEIZARAN

Gonbidatuak Ordizia, Burlata, Egues eta Saieko taldeak izan dira aurtengo gonbidatuak. 250 lagun aritu ziren, denera, eskubaloian jokatzen. Saieko eta Burlata taldeak nabarmendu ziren, etxekoek ekimena ahaztu gabe.



Arrate eskubaloian aritzeko egokitu zuten. LEIZARAN

Arraten eta Allurralden Egun osoko jardunaldia izan zen, aurreko larunbatekoa. Bi kirolguneetan hamasei talde aritu ziren lehen. Eguerdian, herriko elkarteetan bazkaltzeko aukera baliatu zuten.



Etxeko jokalaria, aurkariaren atearan aurrean. LEIZARAN

Lehia handiko partidak Denboraldia prestatzeko lanetan, lagunarteko partidak baliagarriak dira. Xede horri jarraitzen dio Leizaran taldeak Andoainen antolatzen duen txapelketarekin. Gogotsu aritu ziren gehien-gehienak.



Entrenatzaile berrieekin hasiko dute denboraldia gorritxoek. AIURRI

Ekiteko prest dira

Larunbatean hasiko du denboraldia UKEren gizonezkoen lehen futbol-taldeak: 16:00etan, Mundarroren aurka jokatu du Astigarragan. Bide beretik, iraileko azken asteburuan jokatu dute emakumezkoek lehen partida: kanpoan, Euskaldunaren aurka

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Udako atsedenaldiaren ostean, bueltan dira Urnieta Kirol Elkarteko futbol-taldeak. Aurre-denboraldian entrenamenduei martxa hartuta, indarrez ekin-

go diote ekainera bitarteko bideari. Klubeko lehen bi taldeetan murgildu da Aiurri, kapitainekin bildu eta prestatzeko, aldaketez zein erronkez jarduteko.

Igoera-fasera iristea, helburu
Joan den denboraldian bezala, emakumezkoen Gorengo mailan ariko da lehian oraingoan ere Urnietako taldea. “Bizi osoa” darama Aloña de Torres Bilbaok



Bost aste daramatzate urnietarrek aurre denboraldiko entrenamenduetan murgilduta. AIURRI



De Torres kapitaina. AIURRI

klubean eta gorritxoek kapitaina da erdilaria. Begi onez ikusten du urnietarrak aurtengo entrenatzaile aldaketa, “ikus-puntu ezberdinak eta entrenatzeko modu ezberdinak” sortuko direlako. Bide batez, “gogotsu” daude, “ilusioz”, denboraldiarekin hasteko: “Espero dugu, behintzat, igoera-fasera iristea eta ahal dugun hoberen lehia-tzea”.

Mailari eusteko erronkarekin
Postu onean gelditzeko anbizioz abiatuko da ere gizonezkoen Gorengo mailan ariko den taldea. Futbol-eskolatik dabil herriko klubean Sergio Fernandez Gonzalez kapitaina. Aurre-denboraldi biziaren ondoren, prest daude jokalaria, erdilariaren hitzetan. Kalitatea igo egin dela azaldu du Fernandezek, kanpotik ekarritako jendea zein lehen taldera jauzi egin duten jubenilak direla eta: “Taldearen aur-

tengo helburu nagusia maila mantentzea da”.
Bi kapitainak bat datoz: zaleen babesak indarra emango dio klubari. Emakumezkoen futbolari bultzada emateko deia luzatu die De Torresek zaleetuei; era berean, herrikideen gertutasunak taldeari lagundu egingo diolakoan da Fernandez: “Nortasuna pizten du”.

Lehen partidak, etxetik kanpo
Urnietako lehen bi futbol-taldeen etxetik kanpo hasiko dute denboraldia. Gizonezkoek Astigarragan izango dute beren lehen norgehiagoka, Mundarroren aurka, larunbat honetan, arratsaldeko 16:00tan. Emakumezkoek Euskalduna izango dute aurkari, Andoaingo Ubitarten, iraileko azken asteburuan.
Aurretiazko lanak eginda, prest dira klubeko lehen bi taldeak denboraldiari gogoz ekiteko.



Fernandez kapitaina. AIURRI



Aimar Perez Lainez, lortutako sariekin. AIURRI



Andoaingo Kabutoken Kenpo Kai taldea. Kenpo Kai kirolak karate jiu-jitsu eta judoa konbinatzen ditu. KENPO KAI

"Txapelketetan onena ematen saiatzen naiz"

AIMAR PEREZ LAINEZ KENPO KAI KIROL JARDUERAN TXAPELDUNA

Kenpo Kaiko Munduko txapelketako urrezko domina lortu zuen Japonian, udan, Randori Youth Class izeneko modalitatean

Xabier Lasa ANDOAIN

Aimar Perez Lainez hamasei urteko gazte andoaindarrak defentsa pertsonalean oinarritzen den Kenpo Kaiko Munduko Txapelketako urrezko domina lortu du Hamamatsu hirian (Japonia) berriki, Randori Youth Class izeneko modalitatean; eraso eta defentsa askeko partida jokatzeko da aipatu modalitatean. Azpimarratzekoa da, munduko onena dela erakutsi baitu bere mailan, eta ez edonon, Kenpo Kai sortu zen lurraldean, Japonian, hain zuzen.

Zorionak, lehenengo eta behin.

Eskerrik asko!

Ez da edozer gauza izango Munduko txapeldun izatea.

Ba egia esanda, lorpen handia izan dela aitortu behar dut. Bizitzan bati inoiz ahaztuko ez zaion bizipen horietako bat izan dela esango nuke.

Probestu nahiko nuke aukera haxe, eskerrak emateko txapelketaren aurretik eta ondoren lagundu didaten pertsona guztiei. **Kenpo Kai ez da oso kirol ezaguna gurean. Eduki al du oihartzunik zure garaipenak? Zoriontzera gerturatu al zaizu jendea?**

Familia eta lagunak ez ezik, eskolako irakasleak ere etorri zaizkit zorionak ematera. Bestalde, Andoainen herritar ugari gerturatu zait. Oihartzun handia eduki du garaipenak, eta horrek ere poztu nau, ez baita oso eza-

guna Kenpo Kai kirola, esan duzun bezala.

Kontatuko al zeniguke zer egin behar den munduko txapelketa irabazteko?

Egia esan, hiru borrokaldi oso zail irabazi behar izan nituen; hiru erronkei edo zailtasunei aurre egin behar izan niela, alegia. Batetik, txapelketako lehia bera; izan ere, maila handiko lehiakideak egokitu baitziztaizkidan. Bigarrenik, Japonian jasan behar izan genituen baldintza klimatikoak (38-40 gradu bitarteko beroa, gehi %98-99ko hezetasuna); baldintza horietan, zure gorputza nekatua eta astuna sentitzen duzu etengabe. Gainditu behar izan nuen hiru-

garren zailtasun gisa, exigentzia maila horretako txapelketak eragin zidan urduritasuna aipatuko nuke.

Urduritasuna aipatu duzu. Nola egiten diezu aurre lehiaketei? Urduria izateaz gain, beharko duzu eduki kontzentrazio ona, diziplina..., iritsi zaren lekura iristeko, ala?

Oso pertsona distrailua naiz, eta egoten naiz urduri txapelketa aurretik. Horrexegatik, bakarrik egotea dut gogoko, hobe kontzentratzeko. Behin lehian murgilduta, nire onena ematen saiatzen naiz.

Tunisian Munduko txapelketan 2023an ere urrezko bi domina lortu zenituen. Orain, Japonian urrezko beste domina bat. Bi urte hauetan nola ikusi duzu zure burua, hobetzen, eskarmentua hartzen...

Etengabeko progresioa bizi izan dudala esango nuke, eta horrek asko lagundu dit munduko txapelketa berriro irabazteko. Bestalde, nire entrenatzaileek eta nire gurasoek eman dizkidaten aholkuak ere oso lagungarri egin zaizkit urte horietan. Gurasoek, batez ere esfortzuaren eta umiltasunaren balioek daukaten garrantzia transmititu didate.

Andoaingo Kabutoken Kenpo Kai taldean aritzen zara. Ze giro edukitzen duzue taldekide guztiek?

Primeran moldatzen gara guztiok ere, normalki. Astean bitan joaten gara (asteazkena eta ostirala), eta txantxetan aritzen gara asko, klaseak dibertigarriagoak eta entretenigarriagoak izan daitezten.

Bestalde, esan behar dut txapelketa prestatze aldera, Oiarztunera joan naizela azken aldian. Han ere, giroa ezin hobea izaten dugu irakasle eta ikaskideek. Familia-giro polita osatzen dugu. **Zenbat kirolari gazte biltzen zarete Andoaingo klubean?**

Gaur egun, Arrate frontoian Kenpo Kai arte martziala 15-20 bat lagunek praktikatzen dugu, helduen klasean. Umeentzako klaseak ere badaude.

Noiz eta zergatik hasi zinen Kenpo Kai praktikatzen?

Gurasoek txikia nintzenean ize-na eman zuten Kenpo Kai taldean, gitera apuntatu ninduten, kirola egiteko eta defentsa pertsonaleko oinarritzeko nozioak edukitzeko. Oso azkar egin nituen lagunak, eta giro atsegin hori kontuan izanda, oso gustura joan izan naiz beti entrenatzera.

Kenpo Kai arte martziala, besteak beste, oso baliagarria egin zait eguneroko zailtasunei aurre egiteko. Esate baterako, eskolako azterketen aurrean, nire bulkadak edo urduritasun uneak hobeto kontrolatzeko orduan.

Andoaingo gazteak animatuko al zenituzke Kenpo Kai proba zezaten?

Jakina baietz! Ikas dezaketen defentsa pertsonalagatik ez ezik, lehen esan dudana bezala nerbioak edo bulkadak kontrolatzen laguntzen dizulako ere bai. Ezauzgarri horiek oso erabilgarriak dira bakoitzaren egunerokotasunerako. Gainera, oso giroa oso izaten da saioetan, eta ziur bikain pasako dutela. Anima daitezela!



AIURRI

Nesken Larramendi torneoa

Emakumeen Gorengo Erregional mailako Euskalduna eta Intxaardi taldeen arteko partida izango da larunbat honetan. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da Larramendi Torneoa. Denboraldi aurreko azken partida izango da, liga hastear baita. Iraileko azken asteburuan izango da, zehazki, Euskaldunaren eta Urnietaren artekoa.



AIURRI

Gurru memoriala, Ubitarten

Infantil mailako Gurruren omenezko laugarren txapelketa antolatu zuen Euskaldunak, aurreko igandean. Goiz osoan infantil mailako neskak eta mutilak lehian izan ziren. Nesketan, gainera, Euskaldunako neskak gailendu ziren. Denboraldi berria prestatzeko lanean dira Euskaldunako talde guztiak.



Allurralde igerilekua. BURUNTZALDEA IKT

Igeriketan izena emateko aukera zabaldik dago

Buruntzaldea IKT taldeak denboraldi berriko eskaintzaren berri eman du

Erredakzioa ANDOAIN
Lasarte-Oriako eta Andoaingo igerilekuetan ariko dira trebakuntza lanetan. Klubeko arduradunek gogorarazi dutenez, oraindik ere izena emateko aukera dago. Entrenamendu epea eta iraupena, kategoria edo atal bakoitzaren arabera, desberdina da.

Master taldeak urriaren 6an hasiko ditu entrenamenduak. Master atala 18 urtetik gorako igerilari, igerilari ohi, triatloi-lari edo igeriketarekin zerikusia duen edozein jarduerako kirolariei zuzendua dago. Ordainketa urte osokoa izango da, sei epeetan ordaintzen dena.



AIURRI

Mugitu Andoain

Jarduera fisikoen aldeko eguna irailaren 27an izango da. Askoren artean, duatloia ezagutu, Laba Social ekimena, mendi-bizikleta irteera, Ibili Andoain berezia... egitarau oparoa antolatu du Kirol sailak. Partaide guztiek opari bana jasoko dute. Jardunaldia Zumea plazan amaituko da, eguerdiko 13:00tan.



GALARRETA

Ansa finalaurrekoetan da

Urnietarra egungo txapelduna da, eta lesioak baldintzatu badu ere, buruz buruko txapelketa nagusiko finalaurrekoan da. Juanenearen aurka 30-28 galdu arren, 24 puntu lortu zituen, txapelketan aurrera doa. Finalaurrekoan aurkari bera izango du: Juanenea. Finalista zain dute dagoeneko: Barrenetxea IV.

IRAILAK 20

LARUNBATA-15:15

GALARRETA

JAI ALAI

GAZTEAK

QR CODE

ORLA MENDI

K

55 sukia

ORONA

ORONA

XLIII

BURUZ BURUKO

EUSKALDEI

TXAPELKETA 2025

FINALAURREA

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

EZKURRA II · ZUBIRI vs

GOIKOETXEA VI · AZPIROZ

2. PARTIDA (BURUZ BURUKO FINALAURREA 30 TANTORA)

ANSA II vs

JUANENEA

3. PARTIDA (ORIAMENDI TXAPELKETA FINALAURREA)

JABALERA · ESKUDERO vs

GURRUTXAGA · APEZETXEA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

IKASTAROAK

ANDOAIN Hainbat ikastaro
2025-2026ko kultur ikastaroetan izena emateko epea irailaren 15ean zabalduko dute. Egur lanketa, pintura eta eskulanak, aukeran. Asteko, bi ordu eta erdiko ikastaroak izango dira eta interesatuak Basteron edo Andoain.eus gunean eman behar du izena.
Azken eguna: Irailak 25.

URNIETA Jabekuntza Eskola
Eskaintza zabala Urnieta.eus gunean eskuragarri.
Epea: Irailak 19, ostirala.

IKUSZIRKUS

ANDOAIN IkusZirkus
“Leinu” zirkur-emanaldiarekin amaituko da IkusZirkus zikloa.
Irailak 19, ostirala.
19:30, Bastero Kulturgunea.

ANTZERKIA

ANDOAIN "Castua"
Extremaduraren eta bere herritarren historia ikuspegi kritikotik jorratzen duen antzezlan.
Irailak 26, ostirala.
19:30, Bastero Kulturgunea.

EKIMENAK

ANDOAIN Mugitu Andoain
Jarduera fisikoa sustatzeko egun osoko egitaraua antolatu du Andoaingo Udalak.
Irailak 27, larunbata.

ANDOAIN Merkataritza Astea
Egunotan, txartela eskuratu daiteke eta, segidan, sei zigilu lortu behar dira Salkineko merkatalguneetan. Zigiluekin txartela betetzea lortzen dutenen artean 2.500 euroko balioa duen bidaia zozkatuko dute.
Irailak 21 bitarte.

ANDOAIN Outlet kalean
Merkatariek mauka ederrak eskainiko dituzte, bi egunez. Ostiral arratsaldean, gainera, txaranga doinuak nabarmenduko dira.
Irailak 19 eta 20.



Mulisko gaina. AIURRI

URNIETA Txangoa, Mulisko gaineko megalito-gunera
Mulisko gaineko megalito-gunera txangoa egiteko aitzakia luzatu die mendizaleei Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak: irailaren 20an izango da hitzordua goizeko 10:00etan.
Hasi eta buka, Besabi izango da bisitariak elkartzeko puntua eta Luiz Mari Zaldia herrikideak hartuko du txangoa gidatzearen ardura. Euskaraz izango dela iragarri dute antolatzaileek eta 6 euroko prezioa izango du jarduerak. Horrez gain, izen-ematea ezinbestekoa dela iragarri dute: "Hamalau urtetik gorakoentzat da soilik".
Izena emateko hainbat bide ipni ditu antolakuntzak aukeran: 943 49 42 48 zein 688 89 50 68 telefono-zenbakietara hots eginda edo arditurri@gipuzkoanatura.eus helbide elektronikora idatzita
Irailak 20, larunbata. 10:00.



ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
David Gilmourlive at The Circus Maximus, Rome
Irailak 20, larunbata. 19:30.

Romeria
Irailak 21, igandea. 19:30.
Irailak 22, astl. 17:00, 19:30.
Super Elfkinak
Irailak 20, larunbata. 17:00.
Irailak 21, igandea. 17:00.



SINOPSISIA

Romeria
Zuzendaria: Carla Simon. **Aktoreak:** Lucía García, Mitch, Tristan Ulloa, Celine Tyll, Miryam Gallego. **Herrialdea:** Espainia (2025). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 111 m.

Carla Simonen berriena

Marina Vigora bidaiatzen da bere aita biologikoaren familia ezagutzeko; hura HIESak hil zuen, eta haren ama ere bai, Marina oso txikia zenean. Osaba-izeba eta aitona-amonekin izandako elkarriketen bidez, gazteak bere gurasoen inguruko kontakizun bat berreraikitzen saiatzen da, baina guztiek lotsa handiegia sentitzen dute bikotearen droga-gatazkekiko, eta Marina bera da horren orogarri. Bere lehengusuarekin biziko duen nerabezaro-maitasun-istorioak ahalbidetuko dio gurasoak berriz irudikatzea eta haiekin konektatzea. Horrela, amaren egunkariari esker ipuin bat asmatzen du, familiak gurasoekiko sentitzen duen estigmatik askatzen duena, eta iraganaren ulermen-nahia betetzen duena.

SINOPSISIA

Super Elfkinak

Haur zinema, euskaraz

Helviren mundua hankaz gora jartzen da. Klanen arteko banaketa zaharrari eta emakume polizia temati bati aurre eginez, bere patua betetzeko borrokatuko du: Super Elfkin bihurtzea!



XOXOKA AUZO ELKARTEA

Pontx pailazoa, Xoxokan

Pontx pailazoaren bisita jaso zuten joan den asteko ostiralean Xoxokako bizilagunek. Auzoko eskolan egin zuten bilkura, arratsaldean. Hori horrela, umorez eta sorpresaz beteriko magia gozatzeko aukera izan zuten, familia-giroan, gaztea izanagatik, jendaurrean eskarmentu handia duen pailazoaren eskutik.



Ibilbidea ikusgarria da. JABI GOZALO

Gavarnieko zirkora, Euskaldunaren eskutik

Iraileko azken asteburuan Andoaingo mendizale elkarteak Lourdesera bidaia antolatu du, eta handik bi ibilbide antolatu dituzte. Lehena, luzea, Espuguettes aterpea eta Gavarnie artekoa. Bigarrena, Faja-Pailha aterpea eta Gavarnie artekoa

Erredakzioa ANDOAIN

Interesa duenak, luze gabe, ize-na eman behar du. Bazkideek 110 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 125. Egitaraua:

- Irailak 27, larunbata. Andoaindik 13:00etan irtengo dira, Lourdesera bidean.
- Irailak 28, igandea. Irteera luzea: 07:00etan, Gavarnieko

zirkora irteera. Espuguettes aterpea-Pimene (2.801 m)-Gavarnie. 21 km. Igotako desnibela: 1.550 m. Iraupena: 8 ordu. Irteera motza: Gavarnieko zirkora irteera. Gavarnieko zirkora-Faja-Pailha aterpea-Gavarnie. 12 km. Igotako desnibela: 650 m. Iraupena: 5 ordu. Ibilbidea amaituta Andoainera itzuliko dira.

Izen-ematea

Lau modutara egin daiteke izen-ematea:

- Kale Nagusiko egoitzan, asteartean eta ostegunean (19:00-20:30).
- Telefonoz deituta: 943592232.
- Whatsappez idatzita: 688 484 028.
- E-postaz: euskaldunamt@yahoo.es.



Kamio. AIURRI

Kamio eta Garcia-Viana idazleak saritu dituzte

Euskal literaturan erreferentziatzeko sariketa da Irun Saria eta aurtengo irabazlea Garazi Kamio Andoaingo idazlea izan da. "Moebiusen ertzak" izeneko egitasmoa saritu du epaimahaiak. Aipamen berezia jaso du, bestalde, Urnietan bizi den Txema Garcia-Vianak. "Bidaiak, lazta-nak eta orbainak" izenburuko lana aurkeztu du lehiaketara, euskarazko eleberria atalean.



Garcia-Viana. WIKIPEDIA

ZORION AGURRAK



URNIETA
Jokin, zorionak!
Hilaren 19an hamahiru urte beteko dituzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekeekin.



ANDOAIN
Zorionak Nago!
Urtetik urtera, ardoa bezala, hobetzen... Zorionak, Nago! Jarraitu denbora luzean bazterrak nahasten! Muxu bat Aiurriko lan-taldearen partez!



ANDOAIN
Zorionak Oihan!
Eta konturatu orduko 7. buelta eguzkiari. Oso ondo pasa bihotza, asko maite zaitugu!

BEZEROAREN ASTEA

Bidaia baten zozketa!

Irailaren 15etik 21era zure txartela lor dezakezu

Andoainen erosten baduzu, zure txartela lor dezakezu aste honetan

- TXARTELAK IRAILAREN 15ETIK AURRERA, AGORTU ARTE.
- ZIGILUA LORTZEKO EPERA: URRIAREN 15ERA ARTE.
- ZOZKETA: URRIAK 17, OSTIRALA.

Salkineko komertzioetan 6 zigilu ezberdinekin 2.500€ko balioa duen bidaia baten zozketan parte hartuko duzu.

ANDOAIN

S2 SALKIN bertatik bertara

andoaINDARRA

euskaraz

Urrezko Domina, Lurdes Iriondo Mujikari

Gipuzkoako Foru Aldundiak aste honetan egin du iragarpena: Gipuzkoako Urrezko Domina Lourdes Iriondo Mujikari emango dio aurten, haren heriotzaren 20. urteurrenean. Ekitaldia abenduan izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Hain zuzen, foru erakundeak ematen duen hilondoko bigarren Urrezko Domina izango da, 2008an Mikel Laboa zenari eman ostean. Aldundiak adierazi duenez, ekitaldia familiarekin eta gertukoe-kin elkarlanean prestatzen ari dira. Eta aurreratu dutenez, “hunkigarria eta berezia” izango da. Irune Berasaluze foru bozeramaileak hedabideen aurrean nabarmendu zuenez, Gobernu Kontseiluak onartutako errekonozimendu honen bidez “Lourdes Iriondok euskal kantagintzan eta haur literaturan egindako ekarpen aitzindaria aitortu nahi da, hala nola garai-



Lourdes Iriondo. ARTXIBOKO IRUDIA

ko estereotipoak eta oztopoak gaindituz emakume sortzaileak euskal kulturaren erdigunean

kokatzeko izan zuen adorea ere”. Eta zein da xedea? Hein batean, justizia egitea: “Iriondok euskararen biziberritzean eta euskal kulturaren suspertzean egindako lan mamitsu eta berritzailea gaurkotzea, justizia egin, eta behar duen lekuan kokatzea”, adierazi duen Foru bozeramaileak. Gerora ere, “gure herriaren eta lurraldearen historian me-rezi duen tokia izan dezan”.

Iriondo bidegilea izan zen hainbat alorretan: “Bere ibilbidea aitzindaria izan zen berdintasunaren ikuspegitik ere, emakume sortzaileak plazaren erdigunean kokatzeko ausardia eta gaitasuna izan baitzuen,



Leire Berasaluze Foru Aldundiko bozeramaileak egin zuen iragarpena. AIURRI

gizarte hertsu batean. Bere abestietan euskaltzetasuna, herri-gintza, kritika soziala eta politikoa, nahiz espiritualtasuna uztartu zituen, eta, horrela, ondoren etorri diren emakume musikari eta kulturgileentzat bidea urratu zuen”.

**"JUSTIZIA EGIN ETA
BEHAR DUEN LEKUAN
KOKATZEA" DA
AITORTZAREN
HELBURUA**

Lourdes Iriondo, Zinemaldian

"Ez gara alferrik pasako" dokumentala Lourdes Iriondoren eta emakumezko garikideen aroan sakontzeko ahalegina da. Inge Mendioroz andoaindarra da zuzendaria eta gidoilari lanetan aritu da Idoia Garzes lasartearra. Donostiako Zinemaldian Zinemira zikloari hasiera emango dio lanak, asteburu honetan.

**Eskualdeko informazioa,
orain ere, Aiurriren
WhatsApp kanaletan**

Batu zaitez!

Aiurri Aiztondo

Aiurri Andoain

Aiurri Urnieta